Ihesean

Harkaitz Canoren bigarren poema liburu hau aurrekoa plazaratu eta zazpi urtera heldu da

Poesia: **Norbait dabil sute-eskaileran. Harkaitz Cano**
Susa, 2001
94 orrialde
1.500 pta. (60 libera)

Ana Urkiza

Norbait dabil sute-eskaileran Harkaitz Canoren bigarren poema liburua da. Lehenengoak *Kea behelainopean bezala* zuen titulu, eta zazpi urteko distantziak banatu dituen bi poema liburu hauen artean, beste zazpi liburu argitaratu ditu: ipuinak, kronikak eta eleberriak tarteko.

Canoren azken lana da eskuarteko hau. Azkena, denboran azken argitaratu delako, eta azkena halaber, segur aski, New Yorkera egindako bidaiaz idatziko duen azkena izan daitekeelako. *Norbait dabil sute-eskaileran* poema liburua aurretik idatzitako *Pasaia blues* eleberriarekin eta *Piano gainean gosaltzen* kronika liburuarekin trilogia osatzera dator. Hiru lanetan trinkoena badateke ere, *Norbait dabil sute-eskaileran* poema liburuan, poeta kameraren objektibo atzean babestu dela nabarituko du irakurleak. *Piano gainean gosaltzen* kronika liburuan idazlea New Yorkeko gizarteaan bere burua ezagutzera eta deskribatzera heldu bazitzaigun ere, oraingoan, gizarte horrekiko ikuspuntu objektiboagoa hartuko du, ikuspegi kritiko eta zorrotzagoa erabiliz.

Honakoan, Canoren poesia narratiboa dela esan daiteke, objektibotasun horren erakusgarri. Poetari ez zaio interesatzen barne sentimenduak edo Nia erakustea, bizitzaren inguruko hausnarketa egitea baino.

Gizaki ez perfektuak dira Canoren pertsonaiak. Ezkutuan agerian baino gehiago duten pertsonak. Sute-eskailera, gizaki ez perfektuek beren miserietatik ihes egiteko erabiliko duten bitartekoa da.

Erbestera joan denak, bidaiariak, begi ezberdinekin dakusa bisitatzen duen herrialdea. Kanpotik begiratzen duenak ikusten duena izoztu dezake. Erradiografia bat atera eta aztertu. Horretarako denbora hartu. Baina poetak badaki, erradiografiatutako jendearentzako ezin dela denbora gelditu eta ateratako argazkitik egindako analisiak ere ez duela balio. Hauentzat, bizitza egunerokotasuna da, eta poeta, egunerokotasun hori erretratatzen duen kritikoa. Hortik ateratzen ditu Canok argazki hain surrealistak.

Harkaitzek New Yorken beste gizarte mota batekin egin du topo. Beste bakardade bat bizi du, beste harreman batzuk egin ditu, estratifikazio sozial ezberdina ezagutu du... eta aspektu horiek guztiak ditu geltoki.

Norbait dabil sute-eskaileran poema liburuak hiru atal ditu. *Sismografia* da lehena: poetaren barrunbea gehien antzematen den atala apika. Barne-munduaren argazki instantaneoak eskaintzen dizkigu honetan Harkaitzek, gauza arruntetan sumatzen duelarik egunerokotasunaren mikaztasuna. *Sute-eskaileretan bizi direnak* da bigarren atalaren titulua: bigarren zati honetan bi pertsonaia mota nahasten ditu poetak: jende jantzia edo arranditsua batetik, eta jende arrunta bestetik. Denek komunean duten ezaugarria sute-eskaileretan behera ihes egin beharra izango da. Zerbait ezkutatzeko izatea. Honen aurrean, poeta kritikoa da. Canoren begiak gauza oro harrapatzen du, baita detailerik txikiena ere. Hirugarren atala, *Brooklynerako hirugarren irteera* da, eta hemen, New Yorkeko bizitzaren *flash*-ak eskaintzen dizkigu. Hango bizimoduaren zeharkako kronikak. Bizitza adabakiak.

Dardaraz mintzo

Dardaraz mintzo zaigu Cano. Bizitza dardararazten duten gauzez, nahiz eta ezkutukoak izan. Nahiz eta ezkorrak izan. Bizitzaren oinarri diren miseriez. Batez ere, gizakiaren ikuspegi eta joera miserableez.

Gauzak sinpleak dira. Baita heriotza ere. Baina badirudi, gauza sinple horiek, egunerokotasunak, ezin duela bere horretan existitu, zerbait izango badira. Egunerokotasunari, bidaztiak eginiko argazki bat-batekoari, iheskortasuna sumatzen zaie.

Poesia fikzioa da, ikasiz goazen fikzioa. Poesia bizitzaren irudi, eta poeta, bizitza horren ikusle edo behatzaile; eguneroko gauzetan erreparatzeko dohaina duen bidaiari pribilegiatua.

Dardarak errepikatu egiten dira. Biziarazi egiten digute. Momentua bizi dugun erakusgarri dira. Poeta, definizioz definizio, hainbat erradiografia atereaz doa.

Kroniketan, poetak, New Yorkeko bizitza gozatuz zihoan sentsazioa eman zigun. Ez hala, poema liburuan. Zinikoa izatera heltzen ez den Canoren azken poema liburuaren irudia ihesbidea da: sute-eskailera. Non gelditu zaizkio ordea pertsonaiak, behin deskribatu eta gero? Bakardadea leuntzeko balio al diote?

Poemen tituluak uharte bakartiak dira Canorengan. Liburuaren itsasoan nabarmendu nahi duten buia igerilariak.

Poema liburu honekin, Canok bere bizitzako ziklo bati amaiera eman diola esan liteke, eta, agian, literatura egiteko modu zehatz bati ere bai. Irakurleari ez zaio oso argi gelditzen, poeta zenbateraino biluzten zaion, zenbateraino zaion ausart biluzte horretan, zenbateraino ezkutatzen duen berak ere, poesiaren atzean, poetaren bisaia.

Poetak bere obran ebidentzian jartzen dituela esan liteke, poema liburuan kritikatzen diren akatsak, akats mingarriak, akats ez fidelak... eta poeta beraren ezkutaleku gazi-gozoak...

Felipe Juaristik militante troskista despistatu bati buruz idatzi du narrazio luze honetan

Narrazioa: **Inazio Muniberen abenturak.**
Felipe Juaristi
Olerti Etxea, 2000
59 orrialde
1.000 pta. (40 libera)

Nobela frustratu baten lehen kapitulua zena, *Inazio Muniberen abenturak* narrazio luzea bilakatu du Felipe Juaristik. Barre egiteko istorio moduan aurkeztu du egileak, eta militante troskista despistatu bat du protagonista. Exajerazioa eta fartsa ditu abiapuntu, eta narratzaileak denari egiten dio barre, bere buruari barre egitetik hasita. Ipar Norabidea bilduma abian jarri du lan honek, beste bi poema libururekin batera. Formatu txikian emana da bilduma hau.

Erreformatorioan kokatu du gazteentzako nobela honetako protagonista Pello Esnalek



Gazte literatura: **Azeri-zuloa.**
Pello Esnal
Elkar, 2001
230 orrialde
1.750 pta. (70 libera)

Joseba Jaka literatur beketako bigarren deialdian Esnalen lan hau aukeratu zuten. Liburu hau da beka haren emaitza. Andoni da protagonista nagusia, eta Rokefort erreformatoriora eramango dute, herritik indarka aterata. Izena ere aldatuko diote bertan, eta zenbait lagunen oztopoak gainditu behar izango ditu. Lagunak ere egingo ditu ordea. 70eko hamarkada hasieran kokatu du Pello Esnalek istorioa, eta esperientzia propiotik abiatu da liburua idazteko, Iruñeko erreformatorioan irakasle ibili baitzen garai hartan.

'Ez balego beste mundurik'-ekin hasitako bideari jarraitu dio Karlos Linazasorok lan honekin



Narrazioa: **Ipuin errotikoak.**
Karlos Linazasoro
Alberdania, 2001
140 orrialde
2.000 pta. (80 libera)

Ez balego beste mundurik aurkeztu zuenean, trilogia bat egitekoa zela jakinarazi zuen Linazasorok, eta hau dugu bide horretako bigarren urratsa. Aipatu lehen liburu horretatik kanpo geratu ziren idazkiekin osatu du, gainera, bigarren hau. Ipuin erotikoak idatzi nahian hasi omen zen, baina helburu hori erabat lortu ez, eta azkenean errotikoak bilakatu dira ipuinok. Linazasororen lanean ohiko diren obsesioak aurkituko ditu irakurleak liburu honetan ere, eta trilogia beharrean, hexalogia iragarri du Linazasorok.